


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2004KO MARTXOA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,5 igo ziren 2004ko martxoan

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko martxoa, 2003ko martxoarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuek %3,9ko gehikuntza izan zuten.

2004ko martxoan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,5 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta martxorako urte arteko tasa %3,9ra iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1996-2004



(*)Eskainitako hazkundea martxoko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2004ko martxoan, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,8 igo ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera desberdina izan zuten: aurreko hilaren aldean %0,7 igo zen Eraikuntza eta %1,2 igo ziren Obra Zibileko lehengaien kostuak, hau da, bost hamarren gehiago. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, zeinu desberdineko ibilbideak izan zituztela ikusiko dugu: Eraikuntzako lehengaien kostuak %4,2 hazi ziren, eta obra zibilekoak, aldiz, %2,5.

Martxoan prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *metalezko hoditeria* (%6,7), *petroliotik eratorritakoak* (%6,0), *leherkariak eta gasak* (%3,3), *karea, igeltsua eta eskaiola* (%2,4) eta *burdina eta altzairua* (%2,2) lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten *erabilitako makineria osagarriak* (%-1,6), *garbitzeko eta txukuntzeko materialak* (%-1,6), *beira* (%-1,1) eta *plastikozko hoditeria eta isolatzaile termikoak* (%-0,8) lehengaiak.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *burdina eta altzairua* (%12,3), *metalezko hoditeria* (%10,1), *karea, igeltsua eta eskaiola* (%10,0), *zementutik eratorritako artikulua* (%7,5) eta *pinturak eta bernizak* (%7,1). Aitzitik, urteko arteko prezioetan (2004ko martxoa, 2003ko martxoaren gainean), murrizketak izan zituzten *asfalto-produktuak* (%-8,8), *petroliotik eratorritakoak* (%-8,6), *harri elaboratua* (%-5,0), *bulego-materiala* (%-3,9) eta *beira* (%-3,6) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2004KO MARTXOA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	111,7	0,5	3,9	3,9	
ERAIKINAK	111,6	0,5	4,1	4,0	
OBRA ZIBILA	112,2	0,7	3,0	3,6	
LEHENGAIEN KOSTUA	107,9	0,8	3,8	3,9	
ERAIKINAK	108,0	0,7	4,2	4,0	
OBRA ZIBILA	107,5	1,2	2,5	3,3	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	120,8	0,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: +34-945 01 75 05. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es